

Jazoriko guztiaren barria zabaldu zanean, erritar guztiak arrituta gel ditu ziran; eta aingeruak arria eroaniko lekuan gura izango ebala Jaungoikoak elizea egitea-ta, leku aretan bertan egin eben elizea. Eta egiñiko eliza barria, Jaunaren zerura Igokundeari eskiñi eutsoen.

### XIII

#### LAMIÑEAREN ORRAZIA

Bein baten, *Ibarra* basetxeko etxagunak, basotik etxerantz etorrela, Sailluente'ko landan orrazi dotore bat aurkitu eban. Eta "au dok orraziaren polita!" esanda, *Ibarra*'ko etxagunak orrazia kolkoan sartu eban.

Ettxera eldu zanean, orrazi dotorea aurkitu ebala-ta, pozarren iñoiz baiño gogotsuago apaldu eban; eta gero, egun aretan egiñiko lanaz nekatu egin zala-ta, Agurtza (Errosario) deuna otoi eginda gero, ogera joan zan.

Gau aretan, eguraldi euritsu ta zaratatsua zan. Eta *Ibarra*'ko etxagunak, aizearen burrunda aundiak eta trumoi-ots itzelak artegatuta, lorik bape ez eban egiten.

Onetan, ekaitzaren burrundara itzelaz batean, urriñetik etozan deadar bakan batzuk entzun ebazan. Emakume-abotsa zan, eta geroago ta urrago etorren.

Alako baten, basetxeko atearen otsaz, berba oneik entzun ebazan:

'Txantxiberraaa!  
Nun dok nire orrazia?  
Orrazia emoten ez ba-daustak,  
joan dok ire grazia...

Berba orreik entzutean, etxaguna gelduta geratu zan, eta "lamiñaren bat dok" esanez, artazi batzuk eskuetan ebazala, atartera jatsi zan; eta atean egoanari, abots dardarez, auxe itandu eutsan:

—Nor edo zer az?  
—Sailluente'ko kobako lamiña bat —erantzun eutsan atean egoanak.  
—Zer bear don?  
—Atzo bidean aurkitu zenduan orrazia. Gaur gabeon ospatuko dogun jaian erabilteko bear dot-eta...

Basetxeko ateaq barrenean zulo txo bat eukan; eta etxagunak lamiñeari auxe esan eutsan:

—Orrazia artu gura ba'don, lenengo ire miñña ate-zuloan sartu bear izango don.

Ta lamiñeak, orrazia artzearren, bere miñña ate-zuloan sartu eban. Eta orduan, etxagunak artaziaz, "rrast!", miin erdia kendu eutsan.

Lamiñea, uluka ta garrazika, barbarik ezin eginda gelditu zan. Eta negar baten asita, "mirle, mirle, mirle" esaten, tximistea baizen arin aldendu zan. Eta bidean joiala, *Labarrondo* inguruan beste lamiñña pillo aundi bat aurkitu eban: areik be orrazi-eske etorri ziran. Eta euren lagunak "mirle, mirle, mirle" iñoala konturatu ziranean, euren kontra milla gizon jagi ziralakoan, burrundara ta abiada baten, guztiak batera barriro kobara joan ziran.

KEREXETA'REN  
**EGUNEROKO MEZA**  
(MISSALE ROMANUM)

Bizkai'ko euskeraz. Euskera erraza ta jatorra.  
Bizkaieraz lenengoz agertu dan EGUNEROKO MEZA (abadeak egunero Mezako Oparia egiteko altaran erabilten dauan liburua).

861 orrialde. Biblia papelez.

SALNEURRIAK:

- 1) Plastikuz azalez: 74 peseta.
- 2) Narruzko azalez: 175 peseta.
- 3) Narruzko azalez eta urrezko ertzak: 200 peseta.

Zuzenbide onetara egin  
zure eskabideak:

JAIME DE KEREXETA  
Elorrio (Bizkaia).